

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

Diputatu Kontseiluaren 42/2015 Foru Dekretua, uztailaren 21ekoa , aldatzen duena uztailaren 22ko 36/2014 Foru Dekretua, zeinak arautzen baitu mendetasun egoera aitortzeko, ezintasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura, bai eta, baldintza horiek emanez gero, Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura ere

Arabako Foru Aldundia da gizarte zerbitzuen arloan autonomia erkidego osorako erakundeek ematen duten legeria betearazteko eskumena duen Administrazioa, 27/1983 Legearen 7 c) artikulua emanik eskumen hori (27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia erkidego osorako erakundeen eta bertako lurralde historikoen foru organoen arteko harremanei buruzko Legea), betiere esparru direlarik Euskal Autonomia Erkidegoak, Espainiako Konstituzioaren 148.1.20 artikulua aplikazioz eta autonomia estatutuaren 10.12 artikulua bitartez, gizarte laguntzaren arloan bereturik dituen eskumen eskusiboak.

Eskumen hori elkarren segidan emandako lege autonomikoetan jaso izan da, legeok arautu dutelarik, lege sektorial gisa, gizarte zerbitzuen arloa. Hala, gaur egun, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak (12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa), bere 41.3. artikuluan, Foru Aldundiei esleitzen die Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuei hornitzeko eskumena, salbu eta Eusko Jaurlaritzari esleitzen zaizkionak zuzeneko ekintzarako eskumena dela-eta.

Esparru horretan, 39/2006 Legearen 16. artikuluan aurreikusitakoa oinarri hartuta (39/2006 Legea, abenduaren 14koa, beregaintasun pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa), Arabako Foru Aldundiak bere gain hartzen du, orobat, Beregaintasuna Pertsonalaren aldeko eta Mendekotasunari Arreta Eskaintzeko Sistemako zerbitzu-katalogoko zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak Arabako Lurralde Historikoan ematea gizarte zerbitzuen foru sarearen bidez, bere eskumenari egokitzen zaionean. Horretarako, aintzat hartuko da 12/2008 Legean jasotako eskumen banaketa (12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa), eta 39/2006 Legearen hamabigarren xedapen gehigarriaren babesean beteko du zeregin hori, zeinak berariaz onartzen baititu, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, foru aldundien ezaugarri bereziak, Beregaintasuna Pertsonalaren aldeko eta Mendekotasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren parte hartzen duten lurralde erakundetzat hartuz).

Bestalde, bere eskumenari dagozkion gizarte zerbitzuekin lotutako jarduerak antolatzeko, kudeatzeko, emateko eta gauzatzeko funtzioak betetzen ditu Arabako Foru Aldundiak, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen bidez. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea 21/1988 Foru Arauaren bidez eratu zen, garai hartako Arabako Foru Aldundiko Gizarte Gaietarako Sailari atxikitako erakunde autonomo gisa, eta Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuak arautzen du haren antolaketa eta egitura. Horiek horrela, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea Arabako Lurralde Historikoko gizarte zerbitzuen sare publikoaren kudeatzailea da eta, beraz, berak dauka Beregaintasun Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran bizi diren Pertsonen Laguntzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak xedatutakoak aplikatzeko eskumena.

Arestiko hori babes, Arabako Foru Aldundiak, 2001ean, erreparatu zuen beharrezkoa zela indarrean zegoen araudia aldatzea, hartara, alde batetik, mendekotasun egoeren arretaren esparruko estatuko araudian izandako aldaketetara egokitzearen eta autonomia erkidegoko araudian aintzat hartutako neurri berrietara egokitzearen, eta, bestetik, araudi berrian sartzearen

indarrean izan den araudia urteetan zehar aplikatuz sortutako esperientzia metatuak aholkatzen zituen aldaketak eta hobekuntzak eta orobat Desgaitasunen batekiko pertsonen eskubideei buruzko Hitzarmenaren xedapenak, arlo horretan eragina izan dezaketenak, Nazio Batuen Erakundeak 2006ko abenduaren 13an aldarrikatu eta onartu baitzuen hitzarmen hori, eta Espainiak 2008an berretsi. Hala ere, 2014ko uztailaren 22an, Diputatuen Kontseiluak, 36/2014 Foru Dekretua onartu zuen, zeinek arautu baitzuen mendetasun egoera aitortzeko, ezintasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura, bai eta, baldintza horiek emanez gero, Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura ere.

Foru Dekretu horren 3. artikuluan, mendekotasun egoera aitortzeko eskabidearekin batera zein agiri aurkeztu behar diren arautzen da. Gaixotasun mentaleko kasuak eta beste patologia konplexu batzuk baloratu behar diren kasuetan, beharrezkotzat jo da balorazio organoak beste sistema batzuek emandako informazioa balia dezan, batez ere osasun sistemak emandakoa, irizpen objektibo bat ematearren.

Hori dela eta, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak, osasun zerbitzu publikoen arteko koordinazioa eta bere jarduera hobetzearen, eta aintzat hartuz zeinen garrantzitsua den ahalik eta informazio osoena jasotzea mendekotasun egoera baloratzeko orduan baloratzen diren pertsonen egoera ahalik eta ondoen islatzeko, beharrezkotzat jo du mendekotasun egoera baloratzeko prozesuetan erabili beharreko eredu normalizatuen artean beste inprimaki bat sartzea, "Osasun mentaleko txostena" izenekoa, zeina baloratu beharreko pertsonak nahasmendu mental larri bat daukanean erabili beharko baita.

Horregatik, Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuak hala proposatuta, Gizarte Ongizate-rako Foru Erakundearen Administrazio Kontseilua jakinaren gainean dagoela, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

LEHENA. Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 22ko 36/2014 Foru Dekretua aldatzea (zeinek arautu baitzuen mendetasun egoera aitortzeko, ezintasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak aitortzeko edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura, bai eta, baldintza horiek emanez gero, Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura ere), 3. artikuluan 1. idatz zatian c) letra berri bat sartuz, egungo c) letrak eta hurrengoek aurrera egiten dutelarik hurrenkeran.

"c) Osakidetzako Osasun Mentaleko Zerbitzuak emandako osasun txostena, 006- bis eranskineko eredu ofizialaren arabera, mendekotasun egoera aitortu behar zaion pertsonak nahasmendu mentala daukanean."

BIGARRENA. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

HIRUGARRENA. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Gasteiz, 2015eko uztailaren 21a

Diputatu Nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Gizarte Zerbitzuen Saileko diputatua

BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ

▶ ARABAKO FORU ALDUNDIA



▶ DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

006- bis ERANSKINA

OSASUN MENTALEKO TXOSTEN OSAGARRIAREN PROTOKOLOA
NAHASMENDU MENTALA DUTEN PERTSONEN MENDEKOTASUNAREN
BALORAZIOA EGITEKO KASUETAN

1.- Pertsonaren identifikazio datuak:

LEHEN DEITURA:

BIGARREN DEITURA:

IZENA:

NAN/AIZ/Pasaportea:

JAIOTEGUNA:

 GIZONA EMAKUMEA**2.- Diagnostiko klinikoak:**

Egungo diagnostikoa	Diagnostiko aren data	Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena 10
Aurreko diagnostikoak	Diagnostiko aren data	Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena 10

**3.- Gaixotasunaren egungo agerbide eta bilakabidea****Ezaugarri klinikoaren azalpena**

Azken aldiko bilakabidea (*Egonkortasun klinikoa, azken urtean zenbat aldiz gaixotu den/ospitaleratua izan den, berriz gaixotzeak dakartzan arriskuak...*)

4.- Egungo tratamendua eta tratamenduarekiko atxikidura

Psikofarmakologia		
Psikoterapia		
Atxikidura	BAI	EZ
Betetzea	BAI	EZ
Ikuskapena	BAI	EZ
<i>Zehaztu:</i>		

5.- Informazio osagarria:

Beste alterazio batzuk		
Bada gaixotasunaren kontzientziarik	BAI	EZ
Bada jokabidearen alteraziorik	BAI	EZ
<i>Zehaztu:</i>		



Kontsumitzen al da gai toxikorik (Alkohola / Drogak)	BAI	EZ
Narriadura kognitibo iraunkorra	BAI	EZ
<i>Zehaztu funtzionamendu kognitiboa (Zer gaitasun atxiki dituen vs galdu dituen, memoria, arreta, ulermena, koordinazio psikomotorra, orientazioa, planifikazioa...)</i>		

6.- Beste ohar intereseko batzuk (*harremanak, adiskideak, harremanetako inplikazio emozionala...*)

7.- Ebaluazio psikiatriko eta/edo psikologikoan egindako eskalen eta proben emaitzak

.....medikuak egindako txostena

Medikua zein erakunderen mendekoa den:

.....

Sinadura eta elkargokidearen zenbakia